

# DONOSTIA EZAGUTUZ

**Cristina Castellanos Stephens**  
(Mexiko, 1988) **CARITAS**  
GIPUZKOAK emakumeari arreta  
integrala ematen dion Miriam  
proiektuko boluntarioa da. Gure  
artean bizi diren emigranteei  
zuzenduriko antolatu duen tailerrak,  
izan du oihartzunik.



**Nola sortu zen Miriam proiektura datozen pertsonen hiria ezagutzeko ideia?  
Zertan datza zure proposamenaren filosofiak?**

Duela 10 urte Mexikotik etorri nintzen Basque Culinary Centerera gastronomia ikastera, turismo-gastronomikoan espezializatu nintzen eta harrezkero Donostian bizi naiz. Duela pare bat urte, ekimen bat jarri zuen abian, Eat one, feed one (batek jan, batek elikatu), eta hainbat ibilbide diseinatu nituen, bai Donostian eta bai inguruetan barrena jaten denaren bidez hiriaren historia eta kultura ezagutarazteko.

Egiten dudana bira bakoitza elkarre bati lotuta dago. Adibidez, Aterpeko jangelak, gizarte eta egoitza bazterkerian dauden pertsonentzako CARITAS GIPUZKOAREN eguneko eta gaueko arreta-egoitzak, nola funtzionatzen zuen aztertu nuen. Izugarri gustatu zitzaidan proiektua, ez baita jaten ematea soilik, pertsonaren gizarteratze soziala baizik.

"Aterpeko jangelak nola funtzionatzen zuen aztertu nuen. Izugarri gustatu zitzaidan proiektua, ez baita jaten ematea soilik, pertsonaren gizarteratze soziala baizik."

**Horretarako, Aterpeko koordinatzailea den Iñigo Martinezekin harremanetan jarri zinen.**

Bai. Pertsona bat elikatzea zenbat kostatzen zitzaien galdetu nion, adibidez. Antolatzen dudan ekimen bakoitzarekin, otordu batek zenbat kostatzen duen ateratzen dut, eta elkartzen den pertsona bakoitzeko, baliokidea ematen dut. Turismoak hirian zerbait positiboa uzteko modu bat da.



**Baina zure ekarpena ez da hor amaitzen.**

Iñigorekin hitz eginez, emakumeekin boluntario lanak egitea asko egitea interesatzen zitzaidala esan nion, eta Fatima Garcíarekin, CARITAS GIPUZKOAKo Miriam proiektuko arduradunarekin harremanetan jartzera gonbidatu ninduen. Hala egin nuen. Zituzten beharren berri eman zidan, eta ideia bat proposatu nion. Miriamera joaten diren emakumeek hemen daramaten denbora kontuan hartuta, bere 'desorientazioari' aurre egiteko, tailer bat proposatu nion.

**Hiria ezagutarazteko hiru eguneko ekimena.**

Hala da. Aukera asko daude bizi diren hiria doan ezagutu eta gozatzeko. Beraien egoeratik atera eta arnas pixka bat hartzeko modua da. Goza dezatela!

**Tailerrean, bi lankideren laguntza duzu.**

Bai, Marcela Bueno eta Amaia Abaroa. Hirurek, beste hainbeste modulutan banatua dagoen tailerra koordinatzen dugu. Lehenengoan, ahalduntzea lantzen dugu: helburuak diseinatzen eta lortzen ikastea. Helburu, neurgarri, errealista eta pertsonala. Beraientzako une bat. Eta, euren artean, sare bat nola sor dezaketen ere bai, harremanen eremua oso garrantzitsua baita.

**"Miriamera joaten diren emakumeek hemen daramaten denbora kontuan hartuta, bere 'desorientazioari' aurre egiteko, tailer bat proposatu nuen."**

## **Eta beste bi moduluak?**

Batek, "Esan nolakoa den euskalduna bat, eta zertan antza duzun esango dizut" izena du. Euskal emakumeen eta Latinoamerikako emakumeen arteko kontrasteak dira. Kultura-desberdintasunak egon arren, berez, leku guztietako pertsonak berdinak gara. "Bizirauteko gida txiki" moduko bat da. Hau da, ni duela 10 urte hona iritsi nintzenean, gustatuko zitzaidan norbaitek hiriaren sarrera moduko bat egitea: kode kulturalak...

## **Adibidez?**

Puntualtasuna. Alderdi erabat kulturala. Latinoamerikan, "orain" edo "oraintxe" hitzak, ez du denborazkotasunik. Gure helburua kultura-kodeen artean zubi bat sortzea da.

Beste adibide bat. Latinoamerikan oso zaila da jendeak 'ez' esatea. "Afaltzera gonbidatzen zaitut". Erantzuna. "Ados...". Agian, gonbidatuak ez du joan nahi, eta gero dei bat egin, edo mezu bat bidaltzen du aitzakia bat asmatuz, afarira joateko ezintasuna argudiatuz. Hori guztia egiten du hasieratik afaltzera ez zuela joan nahi esan beharrean.

## **Eta zertan datza tailerreko hirugarren modulua?**

Tour bat Donostiatik barrena. Gauza erabilgarriak irakasten dizkiet: zer parketara joan daitezkeen, doako interneta duten liburutegiak... Bada azterlan bat, "Eremu urdinak" izenekoak, munduko zein hirietan, jendea, denbora gehiago eta zorientsuago non bizi den.

Zera ondorioztatu dute, hainbat faktore daudela denbora gehiago bizitzera bultzatzen dutenak: osasuntsu jatea, ariketa fisikoa egitea, itsasotik eta menditik hurbil bizitzea... Hau da, naturaz inguratuta bizitzea. Eta garrantzitsuena, alderdi soziala. Inguruko lagunez inguratzea, arazoren bat duzunean deitu ahal zaitzaten, edo, noski, haiekin zerbait positiboa partekatu nahi duzunerako.



**"CARITAS GIPUZKOAKo Miriam proiektura heltzen diren emakume asko eta asko, kikilduta iristen dira. Nola ez dira egongo ba!"**

### **Ze interesgarria!**

Baina garrantzitsuena alderdi soziala da, egunerokoa. Etxetik irten, autobuseko gidaria agurtu... Elkarreragin sozialek laguntzen digute gehiago bizitzen. CARITAS GIPUZKOAKo Miriam proiektura heltzen diren emakume asko eta asko, kikilduta iristen dira. Nola ez dira egongo ba! Oso ibilbide luzea egin behar izan dute, eta bizkar gainean motxila astuna daramate.

**CARITAS GIPUZKOAREN Miriam proiektura iritsi diren emakume latinoamerikarrei, nola hitz egin die Donostiak belarrietara? Nola hitz egin die hiriak? Zer esan dizute Gipuzkoako hiriburuaren inguruan?**

Esan didate, adibidez, Donostia oso ondo zainduta dagoela, arkitekturak hunkitu egiten dituela, naturak... Iristen direnean, hasieran, apur kikilduta sentitzen dira. Adibidez, Parte Zaharrera joaten direnean, kaleetan barrena pixka bat galdu egiten dira. Ez dakite zein autobus hartu, orduan ibiltzen hasten dira. Eta oinez ibiltzea da hiria ezagutzeko euren modua.

### **Eta hiriak, nola hartu ditu?**

Bi esperientzia izan dituztela. CARITAS GIPUZKOAREN aldetik, oso harrera ona eta laguntza izan dutela diote. Oso pozik daude Miriam proiektua osatzen duten pertsonen adeitasunarekin: nola irakatsi dizkieten gauza asko eta nola lagundu dieten antzeko egoeretan dauden emakumeak ezagutzen. Sare sozial bat osatzea. Egia da, 'talka kulturalak' ere izan dituztela, sentimendu deserosoak bizi izan baitituzte, baina, oro har, harreragatik oso harkorrak eta eskertuak ikusten ditut.

### **Eta herritarrengandik, zerk deitu die arreta gehien?**

Uste dut oraindik, harreman gutxi izan dutela Euskal Herrian jaiotako pertsonekin.

### **Euskararen eta gaztelaniaren koofizialtasunari buruzko zerbait ezagutzen al zuten?**

Ez. Ezer ez. Sustrai historikoen eta abarren garrantziaz ere ez zekiten. Baina denbora gehien daramaten neskek badakite, jada, nola eskatu kafea euskaraz. Adineko jendeak hiriko istorio asko kontatu eta partekatu ohi ditu beraiekin; hitz erabilgarriak irakasten dizkiete...